



2016ko NIKON SMALL WORLD

Beste eskala batean MURGILDUTA

MUNDUA GURE BEGIRADATIK IKUSTERA OHITUTA GAUDENEZ, eskala-aldaketa txikiak ere harrিতuta utz gaitzake, gure begien aurrean azaldu diren horiek eta gu mundu berean bizi ote garen zalantzan jartzeraino.


Errealitatearen gure perspektibari uko egiteko prest bagaude, mundu berri eta harrigarri batean sar gaitzezke. Hori egiteko gonbita da hau. 2016ko Nikon Small World sarietako irabazleek gure begiei egindako opariak dira hauek, mikroskopia soil batez aurkitutako altxorrak. ●



Zebra-arrainaren lau eguneko enbrioia

OSKAR RUIZ/Texaseko Unibertsitatea, MD Anderson Cancer Center (AEB)

Pertsonetan erbi-etzpaina eta ahosabaiko arraildura deformazioak eragiten dituzten mutazioak ikertzen ditu Ruizek, zebra-arrainen enbrioiekin. Horretarako, enbrioien aurpegiaren garapena jasoko duen atlas bat ari da osatzen *time-lapse* argazkien bidez. Gardentasunagatik, zebra-arrainen enbrioia oso aproposak dira horrelako ikerketetarako.



Kakalardo urpekari arraren aurreko oina


IGOR SIWANOWICZ/Howard Hughes Institutu Medikoa (AEB)

Acilius generoko kakalardo urpekari arrek hainbat neurritako bentosaz beterik dute aurreko oinen azpialdea. Behar-beharrezkoak dituzte bentosak, emeen bizkarrean itsasteko.



Behi-gorotza

MICHAEL CRUTCHLEY (Erresuma Batua)





Tximeletaren proboszidea
JOCHEN SCHROEDER (Thailandia)



**Giza HeLa zelula baten
zatiketa zelularra**


DYLAN BURNETTE /
Vanderbilt Unibertsitateko
Medikuntza Eskola (AEB)

DNA, horiz; miosina, urdinez;
eta aktinazko harizpiak gorritz.



**Espermaren garapena
ozpin-euliaren testikulan**

CHRISTOPHER LARGE /Utah-ko
Unibertsitateko Biologia
Departamentua (AEB)



Burruntzi-larbaren isats-brankia
MAREK MIS PHOTOGRAPHY (Polonia)